



ALBOAN
www.alboan.org

Alternatiboa: etorkizun desiragarri eta posiblea



GARAPENERAKO
LANKIDETZAREN
EUSKAL AGENTZIA
AGENCIA VASCA DE
COOPERACIÓN PARA
EL DESARROLLO



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Alternatiboa: etorkizun desiragarri eta posiblea



“**ALBOANek** *‘Garapenerako aldaketarako prozesuak. Hausnarketa eta praktika’* mintegi iraunkorrean sustatutako hausnarketa zabal baten parte da koaderno hau. Xedea da gaur egun gertatzen ari diren aldaketa-prozesu sozialei buruz eztabaidatzea, baita bidegabekeria eta berdintasun eza sortzen dituen logika ekonomikoa eraldatzen laguntzeko moduari buruz eztabaidatzea ere. Helburu horretara zortzi saio bideratu genituen, 2016ko otsailetik eta 2017ko otsailera bitartean. Horietan, Euskadiko askotariko esparruetako pertsonen parte-hartze paregabea izan dugu: gizarte-esparrua (ekonomia solidarioko eta nazioarteko lankidetzako erakundeak), unibertsitatea, enpresak eta Administrazioa; horiei guztiei eskerrak eman nahi dizkiegu, agertutako konpromisoagatik eta lankidetzagatik”.

Koaderno honen gaia, alternatiboa, etorkizun komun desiragarri eta posiblea, landu zen Mintegi honen bi saioetan, Alfonso Dubois, Javier Arellano eta Carlos Askunzeren hasierako aurkezpenekin. Koadernoko gogoetek egilearen iritzia eta parte hartu zuten pertsonen adierazitako ideiak jasotzen dituzte.

Alfonso Dubois. UPV/EHuko irakasle laguntzailea; bertan, nazioarteko ekonomiako eta garapenaren ekonomiako irakaslea izan zen, 2014. urtera arte. Laurogeiko hamarkadan, Latinoamerikan (Bolivian eta Nikaragua) egin zuen lan. HEGOA Institutuaren (Nazioarteko Lankidetzeta eta Garapenari Buruzko Ikasketak Institutua) presidentea izan zen 1996. urtetik 2010era arte. Bere jarduna garapenerako nazioarteko lankidetzari lotuta egon da, eta egindako ikerketa-lanek eta argitalpenek gai hauek izan dituzte oinarri, besteak beste: giza garapena, pobrezia, garapenerako lankidetzeta, garapenaren teoriak eta berdintasun eza .

Argitaratzailea:

ALBOAN

Aita Lojendio kalea 2, 2. • 48008 Bilbao
Tel.: 944 151 135 • Faxa: 944 161 938

Barañain etorbidea, 2 • 31011 Iruñea
Tel.: 948 231 302 • Faxa: 948 264 308

Andia, 3 • 20004 Donostia
Tel.: 943 275 173 • Faxa: 943 320 267

Estenaga Apezpikua, 1 • 01002 Vitoria-Gasteiz
Tel.: 945 202 676 • Faxa: 945 202 676

alboan@alboan.org
www.alboan.org

Egilea: Alfonso Dubois

Data: 2017

Diseinua eta maketazioa: Marra, S.L.

Inprimatzailea: Lankopi, S.A.

ISBN: 978-84-947153-0-3

Lege-gordailua: BI-1927-2017

Lan honen erreproduzio partziala baimentzen da, baldin eta helburu komertzialik ez badu eta jatorria aipatzen bada.

Aurkibidea

1. Sarrera	5
2. Gogoetaren eta debatearen markoa	7
2.1. Zergatik hitz egiten dugu gaur egun alternatiboaz?	7
2.2. Zeintzuk dira ongizatearen erreferentziak?	13
3. Aldaketa prozesuak bultzatzeko ikuspuntuak eta tresnak. Zer egin desiratutako aldaketa bultzatzeko eta gauzatzeko?	21
4. Alternatiboaz gogoeta egiteko moduei buruzko zenbait proposamen	29
5. Zer gairi buruz jarraitu hitz egiten eta sakontzen?	35

1. Sarrera

Koaderno hau irakurtzen hasi bazara, zerbaitek zeure ingururik gertukoenean, zein maila globalean aldaketa bat izateko premiaz pentsatzera eraman zaituelako da. Eta ez zara bakarra. Gero eta gehiago gara, gaur egun indarrean dagoen garapen ereduak eragindako bazterketa, pobrezia eta desparekotasun lazgarriez jabetuta, ikuspuntu sozial, ingurumeneko, ekonomiko zein kultural batetik jasangarriak izango diren alternatibak sortzeko xedea dugunok.

Jasangarritasunera eta inklusio globalera iristeko trantsizio bideak bilatzea gizarteko eragile guztien parte-hartzea eta konpromisoa eskatzen duen lan eskerga da. Ezin da izan gutxi batzuen zeregina. Eta horrek elkarrizketa eskatzen du.

Elkarrizketan aritzea da, hain zuzen ere, Mintegi Iraunkorraren lehen bi saioetan egin duguna; saio horietan gogoeta egin dugu gaur egun alternatiboaz mintzatzera eramaten gaituzten aldaketa prozesu nagusiez, alternatiboaz mintzatzean esan nahi dugunaz eta etorkizun komun desiragarri eta posibleaz.

Testu honek bi saio horietako elkarrizketako ideia eta ekarpen batzuk jasotzen ditu. Begirada kritikoz egindako irakurketa behar du, gogoeta prozesu baten parte gisa idatzita baitago, eta prozesu hori, dokumentuaren amaierarekin batera ez amaitzeaz gain, eraikitze bidean dagoen diskurtso ireki baten pentsamendu eta sortze prozesuak hasteko abagune izatea nahi baita. Dokumentu honen inperfekzioez jabetuta gaude, baina uste dugu horiek, hain zuzen ere, ongizate indibidual zein kolektiboaren aldeko gogoeta eta ekintza ibilbide honetan jarraitzeko lagungarri izan daitezkeela.

2. Gogoetaren eta debatearen markoa

2.1. ZERGATIK HITZ EGITEN DUGU GAUR EGUN ALTERNATIBOAZ?

Inork zalantzan jartzen ez duen baieztapen bat dugu abiapuntu: gure munduaren agertokiaren ezaugarrietako bat dira beren irismenagatik eta sakontasunarengatik bereziak diren aldaketa prozesu batzuk. Ondorioz, eta ziurgabetasun eta zaurgarritasun handiko garai batean sartzen ari gara, eta horrek erronka berrien aurrean erantzunak bilatzera behartzen gaitu.

Nola egin behar zaio aurre erronka horri justiziari buruzko kezka? Bilaketa hori ezin da modu neutroan egin; hasieratik planteatzen dugu erreferentzia etikoa. Kontua ez da, besterik gabe, arazo jakin batzuei irtenbide zehatzak ematen dizkieten erantzunak bilatzea, baizik eta, gure munduko errealitate berriak aintzat hartuta, gizarte gero eta bidezkoago batera eramango gaituzten proposamenak formulatzea.

Kezka horrekin, planteatzen dugu ea beharrezkoa den pentsamendu alternatibo bat koherenteak izateko aurre egiten diogunaren zein gure xede denaren izaerarekin. Kezka edo ezinegon pertsonaletatik harago doan kontu bat da hau. Alternatiboa pentsatzeak norberaren bizipen hutsak gaintitzea eskatzen du, hala nola sumindura eta ezinegona, horiek oso sakonak izanagatik ere. Senti daiteke sumindura sistemaren funtzionamendu desegokiarengatik, baina hortik ez dator sistemaren aldaketa eskatzea, nahikoa izan daiteke sistemaren funtzionamendu egokia exigitzea.

Horrela, funtsezko gaia da proposamen alternatibo bat beharrezkoa den eta zergatik. Erantzuna bizi ditugun prozesuen izaerari egiten diogun ebaluazioaren araberrakoa izango da, aurre egiten diogun aldaketa sozialaren araberrakoa. Behar dute ikuspuntu alternatibo bat ala ez? Egoerari buruz egiten diren diagnostikoak askotarikoak dira eta, horrenbestez, berrikuspen horren ondoriozko eskaerek eta ondorioek oso aldaketa handiak dituzte. Hiru erantzun lerro nabarmendu daitezke: a) sistemak egokitzapen hutsen bidez bereganatu dezakeen aldaketa kontinuista baten aurrean daudela diotenak; b) egiturak aldatzea exigitzen duen aldaketa baten aurrean daudela diotenak; c) proposapen berri, alternatibo bat exigitzen duen aldaketa baten aurrean daudela diotenak. Alternatiboa ziurgabetasun eta konplexutasun egoera batean sortzen da, gure gizartearen eta gure etorkizunaren funtsezko erreferentziak berrikusi beharrean gaudela, hala nola zer den guretzat garapena, ongizatea...

Zer aldaketa dugu aurrean?

Bizi ditugun prozesuen izaera definitzea funtsezkoa da. Gero eta erabiliagoa da *aldaketa disruptiboa* hitza funtsezko erabaki estrategikoak hartu behar direnean. Aldaketa disruptiboa egitura sozialaren funtsezko alderdi batzuk eraldatzen dituen aldaketa mota bat da, eta gure gizartean finkatzeko asmoa du. Kontua ez da aldaketa-prozesu jakin bat gertatzea soilik, baizik eta gaur egungo garaian gure erreferentzia dela aldaketa. Ez gara bizi jada mundu estatiko batean.

Zergatik da beharrezkoa planteamendu alternatibo bat?

Planteamendu alternatiboa aldezteko arrazoiak, laburbilduz, hiru dira: beharrezkoa, desiragarria eta posiblea da.

- i) **Beharrezkoa** da, kapitalaren bizitzaren aurkako gatazka bat dagoelako munduko leku guztietan, indar eta inpaktu desberdinekin gauzatua, beste bizitza alternatiba batzuk bilatzera bideratzen duena. Behar hori ageriko egiten da bidegabekeria, biktimak, oinazea, desparekotasuna, bazterketa eta abar eragiten dituzten prozesu menderatzaileen adierazpen negatiboak aintzat hartzen direnean.

Baieztatzen da egitura ekonomiko, politiko eta sozialak ezin diola eutsi bizitzari gaur egungo zirkunstantziek eskatzen duten altueran. Horregatik, nahitaezkoa da interpretaziorako beste gako batzuekin (kognitiboak eta emozionalak) bizitzen ikastea, beste helburu batzuen alde ekiteko. Azken batean, asmo honi zilegitasuna ematen diona da gaur egungo bizimodu hegemonikoki normalizatutik zuzenean eratorritako oinaze humano eta ekologikoa. Nahitaezkoa da jasangarritasuna eta bizitzaren erreprodukzioa bermatzea.

ii) **Desiragarria** da, sistema bidegabe batean bizi garelako. Desiragarria da pertsona guztiei bizimodu duin bat izateko aukera erreala emango dizkion sistema batekin hobeto bizitzea. Gizakiok bizitza hobetzea xede duten uste osoak ditugu, bulkada etikoak eta ideologikoak, emozioak... Horregatik, planteatu beharra dago zer den desiragarria etikaren, ideia berrien, kolektiboaren, emozioen, erlazionalaren ikuspuntutatik. Erlazionala elementu erabakigarri gisa baloratzen dugu. Horretarako, aldaketa pertsonala eta aldaketa kolektiboa desiragarriak eta beharrezkoak dira; gure kontzientzia indibidualean maila kolektiboko aldaketak eragiten lagunduko duten aldaketak sorraraztea, eta alderantziz. Bi dimentsioek elkar elikatzen dute.

iii) **Posiblea** da, pertsonak eta komunitateek, ekintza sozial, politiko eta kulturalen bidez, errealitatea eraldatu dezaketelako. Etorkizuna ez du inondik ere teknologia edo errealitate batek markatzen; beti daude hainbat aukera. Edozein egoerak ahalbidetzen du giza ekintzak erantzuna ematea justiziari ondoen egokitzen zaiola irizten dion aukeraren alde. Hain zuzen ere, alternatiboaren tradizioak, markoak eta eraikuntza praktikak daude. Beste modu batean bizi eta ekonomia egin daitekeela erakusten duten esperientziak daude. Erresistentziako eta trantsizioko markoak daude. Esperientzien bilbudura horretatik abiatuta, aldaketari zentzua eman eta bultzatuko duten kontaktak eraiki behar dira.

Nolanahi ere, etorkizun desiragarri eta posibleari buruzko debatea gizarte lokalentzat (garatuentzat zein garatu gabekoentzat) zein gizarte globalarentzat zabaldu da. Proposamen kontinuitate bat eskaintzeko zein proposamen alternatibo bat eskaintzeko. Aldatu beharreko zerbait dago, zerbait galdetu behar diogu geure buruari etorkizun horri buruz, gaur egungo erantzunek ez baitigute balio.

Alternatiboaren premia exigitzeko adierazten diren pertzepzioak

Alternatiboari buruz hitz egiten dugu, gaur egungo egoera saihesteko modukoa dela sentitzen eta baloratzen dugulako.

- Biktimak eta oinazea eragiten dituen errealtate ez-desiragarri batean bizi gara. «Alternatiboaz» pentsatzen dut barrua inarrosten didan bidegabekeria batekin topo egiten dudanean. Horregatik da nahitaezkoa interpretaziorako beste gako batzuetatik, hala kognitiboak nola emozionalak, bizitzen ikastea, giza balioei hobeto egokitutako beste helburu batzuk lortzeko. Alternatiboa nahi izateak giza oinazetik dator, eta indarrean, orenen gaintetik hazkundera bilatzearen poderioz, giza espezieak berak etorkizunean gutxieneko baldintzetan iraun ahal izatea mehatxupean ezartzen duen sistema bat izatetik.
- Urgentziazkoa da bizitza, jasangarritasuna, justizia... sortzen dituzten proposamenekin erantzutea. Nola pentsatu bizitza mereziko duen bizitza bat? Nola eraikiko dugu?
- Alternatiboaren premia sinesmen indibidual batetik edo sinesmen kolektibo batetik eratorria da? Alternatiboa geure bizitzan sortzeko botere erreala dugu, eta bizitza pertsonal guztien batuketak berrira eramango du, etengabeko aldaketa gisa, eboluzio gisa, eraikitako berrira. Egungo testuinguruan, bizitzarako erreferentzia gisa komunitatea duen ikuspuntu batek baino ezin izango du lortu pertsona guztiek aldaketaren parte izatea.
- «Alternatiboai» buruz hitz egin beharra dugu, «garapenaren» kontzepzio nagusiak oso estua izaten jarraitzen duelako (hazkunde ekonomikoa, aberastasuna, batzuetan «ongizate» gisa ezkutatua), eta emaitza negatiboak sortzen ari delako (desparekotasuna, gure ingurumena zaintzeko ezintasuna).
- Berria dena behar bezain desberdina eta ezezaguna da. Zaharra dena behar bezain eraginik gabekoa eta bidegabea da.

Nahitaezko galderak

Zeintzuk dira berrikusketa batek nahitaez planteatu beharreko galderak? Emandako erantzunaren izaera edozein delarik ere, honako dimentsio hauei aurre egin beharko die:

- i) Dimentsio normatiboa: Zeintzuk izan behar dute helburu desiragarri eta posibleak etorkizunerako? Zein da alternatiboaren edota aldaketaren edukia?
- ii) Dimentsio kognitiboa: Zeintzuk dira errealitatea ulertzeko behar ditugun kategorია eta ikuspuntu berriak? Zer narratiba behar ditugu aldaketa desiragarri eta posiblea bultzatzeko?
- iii) Naturaren dimentsioa: Nolakoa izan behar du gizakien eta naturaren arteko harremanak?
- iv) Dimentsio lokal-globala: Nola ulertzen dugu bi espazioen arteko harremana?

Gainera, ez da nahikoa izango arazo jakin batzuei erantzun partzialak ematea, horiek ere beharrezkoak izan arren. Ziurgabetasun eta konplexutasun une honetan aldaketarako kontaketa baten gabezia nabari da. Kategoría berriak behar dira errealitate berriak aztertzeko eta, aldi berean, bizitzari zentzua emango dion bestelako narratiba bat lantzeko. Aldaketa baten proposamenak gizarteak osotasunean duen funtzionamendua aintzat hartzea eskatzen du. Gizarteak izan ditzakeen eta izan behar dituen helburuak berriro definitzeak eta aldatzeak sektore guztien parte-hartzea behar du zilegi izango bada; ezin da gutxi batzuen eskuetan geratu edo gutxiengo baten interesen ondorioz eten. Horrek esan nahi du, parte desberdin askoren arteko eraikuntza interaktiboko prozesu bat jarri behar dela abian; parte horiek, helburu komun batzuk izan arren, oso bestelako helburuak ere dituzte, horietako batzuk are justizia soziala bilatzen duen aldaketa sozialaren aurkakoak ere.

Dubois, Alfonso (2015): «Procesos colectivos y pensamiento alternativo en un escenario de cambio». *Lan Harremanak* 33 (2015-11), 53-72.

Erreferentzia batzuk proposatzen ditu debatea ordenatzeko eta alternatibaren eraikuntzaren alde ahalegintzen direnentzat ezinbestekoak diren konpromisoak zehazteko gako diren galderak identifikatzeko.

http://www.ehu.eus/ojs/index.php/Lan_Harremanak/article/view/16092.

Sanz, Jesús (2017): *Cómo pensar el cambio hoy: Apuntes y propuestas para el compromiso*. Cuadernos CJ, 203. zenbakia. Cristianisme i Justícia, Bartzelona.

Aldaketa eta eraldaketa soziala dira koaderno honen gai nagusiak. «Aldaketa» eta «eraldaketa» kontzeptuek gaur egun duten zentzura hurbilketa bat egiten da, estrategia eraldatzaileen proposamen batzuk aurkezteko.

Therborn, Göran (2003): «La crisis y el futuro del capitalismo». In Emir Sader eta Pablo Gentili (apailatzaileak) (2003): *La trama del neoliberalismo: Mercado, crisis y exclusión social*. 2. argitalpena. CLACSO, Buenos Aires (Argentina), 192.

<http://bibliotecavirtual.clacso.org.ar/ar/libros/trama/ther.rtf>.

Paul Valéryk modu grafikoan adierazten du erronkaren izaera: ideiei eraso egin diete, ezustean harrapatu dituzte eta gertaerek desegin egin dituzte, eta irudimenaren kaudimengabezia moduren baten eta ulermenaren porrotaren lekuko gara. Beste modu batean esanda, ez dugu hitz (kategoria) egokirik arazo berrien izaera adierazteko.

Charles Taylorrek dio egoera berria deskribatzea ahalbidetuko digun hizkuntza aurkitzera behartuta gaudela. Dena oso agudo aldatzen den garai batean bizi gara. Esanahi berriak aipatu eta azalduko dituen hizkuntza bat behar dugu. Amaierarik gabeko prozesua da.

Konplexutasunari eta ziurgabetasunari aurre egiteko, ikuspen eta praktika kolektiboak ikuskatuko dituzten ezaguera kolektiboko prozesuak garatu behar dira. Funtsezkoa da bilaketa prozesua; alternatibak ohiz kanpoko prozesuak behar ditu, pertsonen eta kolektibo sozialen ordezkatzeko eta parte-hartze handiagokoak. Horregatik, interakzio eta aurkikunde prozesua erabakigarria da, eta horrek elkarriketa irekiagoa eta azterketako eta ekintzako integrazio estuagoa eskatzen du.

Aldaketarako narratiba berri batek honako elementu hauek aurreikusi behar ditu: i) indarrean dauden baina dagoeneko gaur egungo errealitatean eragiteko balio ez diguten planteamenduen kritika bat (balioak, kategoriak, azterketarako tresnak...); ii) errealitatearen bestelako ikuspuntua izango duen eta errealitatea hobeto ulertzen lagunduko duen proposamen teoriko bat; iii) jendearengana iristeko gauza izan behar du, aldaketarik ez baita pertsonak aldaketarik izan ezean; eta iv) aldaketa posible baten planteamendua formulatu behar du, hau da, operatiboa eta pragmatikoa izan.

Idea eta proposamen desiragarri eta posible guztiei zentzua emango dien narratiba definitu eta idatzi behar da; ez da aski ideia eta proposamen asko izatea, pentsamendu alternatiboa ordenatu behar da, komunikatu eta inspiratu. Kontua ez da diskurtso ideal bat osatzea, baina bai desberdina aurrez irudikatze eta aldaketa motibatze eta gauza izango dena, testuingurua kontuan hartuta. Auzia ez da teoria itxi eta barne-hartzailea eskaintzea, besterik gabe aldaketari zentzua emango diona: bizitzaren zentzua gehiago da praktika bat, bizitzeko molde bat, proposamen bat baino. Ez da arazo baterako irtenbidea, modu jakin batez bizitzea baizik. Ez da diskurtso metafisikoa, etikoa baizik. Diskurtso baten etengabeko sorkuntza prozesua da, diskurtso horrek barruan diskurtso mordo bat duela.

2.2. ZEINTZUK DIRA ONGIZATEAREN ERREFERENTZIAK?

Ongizatea iritsi nahi den etorkizunaren berrikusteari buruzko debatego funtsezko erreferentzia bihurtu da. Alternatiboa pentsatzeko eta posible izatea lortzeko, eta desiratutako aldaketarantz mugitu gaitezenean, ongizateaz ulertzen dugunari buruz gehiago aski handi batek onartutako kontzeptua izan behar da.

Ongizate proposamenak

Hemen ongizatea berrikusteko proposamen batzuk jasotzen dira. Horien arteko bi mundu akademikotik egindako ekarpenak dira: Mariano Rojasek argitaratutako liburua eta Skidelskyrena. Beste biek eragiteko helburu zuzenagoa dute. NBGPak, garapena ulertzeko beste ikuspuntu bat eskaintzeaz gain, politikak inplementatzeko plataforma bat ere izan nahi du. Senek, Stiglitzek eta Fitoussik osatutako batzordearen lanak ongizatea neurtzeko bestelako modu bat lantzen du. Ondorioak ofizialak ez diren arren, eragin handia izan dute eta horietan oinarritu da OECD (ELGA, Ekonomia Lankidetzeta eta Garapenerako Antolakundea) Bizitza Hobe baterako txostena lantzeko (Better Life Index).

<http://www.oecdbetterlifeindex.org/es/#/1111111111> helbidean ikusgai

Rojas, Mariano (koord.) (2001): *La medición del progreso y del bienestar: Propuestas desde América Latina*. Foro Consultivo Científico y Tecnológico, Mexiko.

<http://www.foroconsultivo.org.mx/FCCyT/publicaciones>

Skidelsky, Robert, eta Edward Skidelsky (2012): *¿Cuánto es suficiente?: Qué se necesita para una «buena vida»*. Crítica, Bartzelona.

Aberastasunaren erabilerekin eta zoriontasunaren izaeraz gogoeta egin beharra planteatzen du, lortu nahi den «bizitza onak» nolakoa izan behar duen definitzeko nahitaezko gaiak. Aseezintasun ekonomikoa eta diruaren gehiegizko desioa kritikatzeko dituzte, eta bizitza onaren eskemarako proposamena egiten dute, horretarako izaera unibertsaleko zazpi oinarritzko ondasun identifikatuta.

NBGP (2010): *Giza Garapenari buruzko Txostena, 2010*. Nazio Batuetako Garapen Programa, NBE, New York.

hdr.undp.org/sites/default/files/hdr2010-basque-summary.pdf.

Stiglitz, Joseph E., Amartya Sen eta Jean Paul Fitoussi (2013): *Medir nuestras vidas: Las limitaciones del PIB como indicador de progreso*. RBA, Bartzelona.

Sintesia eta hamabi gomendioak *Informe de la Comisión sobre la Medición del Desarrollo Económico y del Progreso Social* dokumentuan jasota daude.

http://www.palermo.edu/Archivos_content/2015/derecho/pobreza_multidimensional/bibliografia/Biblio_adic5.pdf helbidean.

**Zer balio eta dimentsio lotzen ditugu alternatiboarekin?
Nola pentsatzen eta eraikitzen dugu bizitza merezi duen bizitza bat?**

Ezin dugu orain erantzuna proposatu, baina identifikatu ditzakegu definitzen joatea ahalbidetuko duen deliberazio prozesuari ekiteko balio dezaketen galdera garrantzitsuak; ez dago iritsi beharreko puntu zehatzik, kontua eraikitzen joatea da.

Ongizatea berrikusteko prozesua

Ongizatearen edukiek zeintzuk izan behar duten ez da galdera berria, ezta sistemarekiko kritikoen diren ikuspuntuen kezka eskusiboa ere. Hamarkadak dira jada gogoeta egiten dela pertsona batek bere buruarekin ondo sentitzeko behar duenari buruz. Azkenaldian, are erakunde ekonomiko gailenetako giroetan ere hasi dira berriro pentsatzen zer neurritan jarraitzen duen BPG per kapitak ongizatearen neurri egokia izaten. Gobernuetako instantzia ofizialetan, nazioarteko erakundeetan, esparru akademikoetan, zein mugimendu sozialetan, ongizatearen kontzeptualizazio prozesu bat gertatu da, dimentsio ekonomiko hutsetik haragoko dimentsioak jasotzen dituen.

Zer lerro nabarmendu daitezke ongizate alternatibo bat pentsatzean?

Funtsezko kontua ekiteko modua definitzea da: zer prozesu jarraitu behar da alternatiboa identifikatzeko eta definitzeko?

a) Kontua ez da berehala aplikatzeko moduko proposamen bat aurkitzea. Bidean jartzen lagunduko diguten ideiak eta ekintzak barneratuko dituen diskurtso bat landu behar da. Aldaketarako prozesuez pentsatzean, denboraren eskala dimentsionatzea komeni da: aldaketa batzuk posible izan daitezke epe laburrean eta, beste batzuek, epe ertaina edo epe luzea beharko dute. Ongizate desiragarri hurreratuko gaituzten trantsizio prozesuak bultzatu behar dira, prozesua «dena ala ezer ez» planteamendu batean paralizatu gabe. Ez uko egin aldaketa bultzatzeari, nahiz eta aldaketak ez izan erabatekoak, edo mantsoak izan. Hobe da jende guztiari komunikatzeko modukoa den eta aldaketa aukerekin bat egiten duen zerbait simple eta inperfekturako bideari ekitea.

b) Jabetu behar dugu gure pentsamendua historia eta kultura jakin batzuek markatutakoa dela. Horren ondorioz, gure begiratoki den testuinguruak alternatiboa eta ongizatea ulertzeko modu jakin batean kokatzen gaitu. Hau da, ez dago «alternatibo» edo «ongizate» neutrorik. Ongizatearen ikuspuntu berriak eskaintzen dituzten askotariko jarrerak daudela onartu behar da. Ongizatearen ikuspuntu desberdinekin lehiatzera eta horiekin batera bizitzera kondenatuta gaude, bizitza ona denaren balorazio desberdinekin, eta elkarbizitza hori emankorra eta positiboa izatea ahalbidetuko duten plataforma komunak bilatu behar ditugu. Kultura guztiek ikas dezakete beste kulturetatik, eta denek aldatu beharko dituzte beren oinarrietako batzuk elkarren arteko interdependentzia saihetsezin hori lortzeko. Ongizatearen kontzepzio desberdinak daude ongizate lokalak deitu genitzakeen eta parte-hartzearen bidez eraiki behar diren testuinguruaren arabera. Baina gisa berean ongizate komuna denari buruzko erreferentzia bat ere izan behar da maila globalean ere, giza duintasuna errespetatuz eta identitate eta apustu lokalekin elkarbizitzan.

Dena dela, globalaren eta lokalaren eremuen arteko interdependentziak gero eta handiagoak izan arren, ez dago gizarte planetario gisa garenari buruzko diskurtso sinesgarririk. Eta komuna funtsezko elementua da aldaketa prozesuen eraikuntzan. Diskurtso global handiak galdu egin dira: gaur egun eusteko diskurtso bat daukagu, baina ez sormenezko diskurtsorik. Esperantza erradikaleko proposamen baten premia dago, maitemina pizteko, mobilizatze, hunkitze gai izango den aldaketari buruzko diskurtso batena... Esperantzarik gabe ez dago aldaketarik. Esperantzazko proposamena sortzen nola joan gogoeta egiteko premia dago, dagoeneko aldaketaren haziak badituzten ekimenetatik abiatuta, utopikoa eta pragmatikoa konbinatuta.

Ongizateari buruzko erreferentziak beste ikuspuntu batzuetatik

Fuentes-González, J. A. (2016): «Alternativas a la economía y al desarrollo desde las epistemologías del Sur y algunas nuevas visiones del mundo». *Cooperativismo & Desarrollo* 24 (109), 59-75. doi:10.16925/co.v24i109.1504. Hegoaldeko epistemologiak eta munduaren beste ikusmolde batzuk jakintzen arteko elkarrizketan has daitezke eta ezagutza modu berri eta pertinente bat eraikitze oinarri izan daitezke.

<https://revistas.ucc.edu.co/index.php/co/article/download/1504/161>.

Villasante, Tomás R. (2015): «El debate sobre el buen vivir y los problemas-caminos para medir los avances en la calidad de vida y la sustentabilidad». *Papeles de relaciones ecosociales y cambio global* 128 (2014/15), 61-78.

https://www.fuhem.es/media/cdv/file/biblioteca/revista_papeles/128/El_debate_sobre_el_buen_vivir_T_R_Villasante.pdf.

- c) Ongizatea eskubide unibertsaltzat hartu behar da. Ongizatea definitzea ez da ariketa intelektual edo akademikoa; zentzua izango badu, pertsona bakoitzari aitortu beharreko erreferentzia gisa proposatu behar da. Horrek ongizatea eskubidetzat jotzea dakar, pertsonala eta kolektiboa; jaiotzen den lekuak baldintzatzen ez duen eskubidea; eskubideak pertsoneri lotuta daudela aitortzen du, herritartasunari, edo are jabetzari, lotutako eskubideen logika hautsita. Zaila da pertsona guztientzako eta munduko leku guztietarako ongizatean pentsatzea, ez badago adostasunik ongizatea eskubidea dela aitortzean: bitzita pertsonal zein kolektibo onerako eskubidea.
- d) Gizatiarrari buruzko ikuspuntu konplexua behar dugu, gizakiaren ulermena materialera, ekonomikora murriztuko ez duena. Dimentsio materialak (oinarrizko premiak betetzea, hala nola elikadura, heziketa, osasuna, bizilekua eta abar) zein materiagabeak (giza talde baten barruko ezagutza eta kidetza) barneratuko dituen ongizatea; pertsona orok izan dezala bere bitzita propioaren zentzua, maitatzeko eta maitatua izateko eskubidea, zaintzeko eta zaindua izatekoa, sorkuntzarakoa, transzendentziarakoa, autorrealizatorakoa). Kontua ez da ideal komun tipo bat definitu nahi izatea, pertsonala izateko modu beteak asko baitira, baina bai ahalegintzea jakiten edozein ongizate definitzeko zer dimentsio hartu behar diren aintzat.
- e) Ongizatearen fokua edukitzetik izatera aldatu (nor bere buruarekiko, inguruarekiko eta besteekiko harremanetan izatera). Bestela, zaila da ongizatearen beste kontzeptu batzuetan eta gure bizitzak antolatzeke beste modu batzuetan pentsatzea.

Alternatiboak beste modu batean ebaluatzen du: daukanarengatik ala naizenarengatik naiz? Ez da aberatsagoa gehiago daukana, gutxiago desiratzen duena baizik. Elementu material gutxiagorekin bizi, beste harreman dinamika batzuk sortuz.

Zaintza pertsonala eta zaintza kolektiboa ongizatearen balioen artean lehenetsi. Bizitzaren zaintzari lotutako ongizate baten alde egin behar da, eta merkatuaren logiketatik at eraikiko da hori: zaintzaren, esker onaren, dibertsitatearen, desberdinaren balorazioaren eta abarren logikatik. Norberaren eta besteen zaintza aitortzea eta balioz indartzea ongizatearen funtsezko balioa da, baita inguruaren zaintza ere, naturarena.


- f) Ongizatearen kontzeptuak dimentsio indibiduala zein kolektiboa artikulatu behar ditu. Ez dago ongizaterik pertsona batek ezin baldin badu bere etorkizuna erabaki, ez baldin badu gizartean duen zentzuari buruzko pertzepzio globalik eta ez baldin bada bere buruarekin ondo sentitzen, ez baldin badu *zertarako* propio bat. Pertsonak desiratzen duten bizitza bizitzeko dituzten ahalmenei lotutako ongizate bati buruz ari gara: beste batzuekin bizitza proiektu bat *libreki* eraiki eta garatzeko ahalmena. Pertsonari buruzko baieztapen honen ondoan, pertsona ezin da ulertu besteekiko erlazioan baizik: erlazioan gara eta erlazioan ezagutzen dugu geure burua, izaki erlazionalak gara. Ongizateak besteekin guztion onean oinarrituta erlazionatzeko ahalmena izatea inplikatzeko du, erlazioan indarberrituta sentitzea, maitatua eta besteen zaintzan zein gure inguruaren garapen sozialean laguntzeko ahalmenaren jabe sentitzea. Dimentsio kolektiboa ez da eranskin bat, ongizatearen kontzeptuaren parte baizik. Ongizate kolektiboa ongizate indibidualen batuketaz harago doa.
- g) Ongizatearen definizioak eraiki nahi den gizartearen nolakotasunen ikuspuntu global jakin bat eskatzen du. Ongizatea, beraz, gizakiarentzat zein naturarentzat jasangarri diren bizitza proiektu indibidual zein kolektiboak garatzeko aukera gisa ulertuta. Proiektu indibidual zein kolektiboen artikulazio hau ez denez tentsiorik gabekoa, desadostasun horiek kudeatzea ahalbideratuko duen egitura instituzional bat beharko da, interes komunarekin ados betiere. Kolektiboaren artikulazio mekanismoak ezarri behar dira, baina ez eredu bakar batekin. Etorkizun komun baterantz aurrera egiteko prozesua modu askotan egin daitekeela aitortzetik abiatu behar da. Azken hamarkadetan, neoliberalismoaren hegemoniak eragin du merkatuaren mekanismoa nagusitzea. Logika ekonomikoak beharrezko beste logika batzuk kolonizatu ditu (zaintzaren logika, doakotasunarena, dibertsitatearen eta desberdinaren balorazioarena eta abar).
- h) Ongizatea aukera berdintasunari, askatasunari eta justiziari lotuta dago. Askatasunaren eta berdintasunaren balioen arteko tentsioa dago, demokraziaren zutabe biak ere. Noraino iristen da askatasuna? Nola definitzen da berdintasuna? Bizitza proiektua erabakitzeko aukera izan, erabaki horiek proiektu kolektiboan eragin negatiborik izan gabe. Kontua da, beraz, askatasun indibidualaren mugak ezartzea, gizartean bizitzeko. Muga ekonomikoak ditu ongizateak: «Besteek ez baldin badute, nik ez daukat ongizaterik». Funtsezkoa da interes gatazkei arreta jartzea.

Hannah Arendt: “Berdintasuna ez dugu berez eskuratzen, giza antolakuntzaren ondorioz baizik, justizia printzipioak gidatuta. Ez gara berdin jaiotzen; berdin izatera iristen gara talde bateko kide gisa, elkarrri eskubide berdinak emateko geure erabakiaren indarrez”.

Ongizateaz aukera berdintasunari lotuta mintzatzean, aintzat hartu behar da aukeren metaketa historiko bat dagoela hala gizarteetan nola enpresetan zein pertsonengan. Hau da, hasierako baldintzak eta jokoaren arauak ez dira berdinak ez pertsona guztientzat ez herri guztientzat. Hortaz, kontua da: zer egin hasierako baldintzak pertsona guztientzat berdinak izan daitezen? Berdintasunerako mekanismoak ikuskatu behar ditugu. Gaur egun, berdintasunerako mekanismo nagusia gatazka da, ez da beti negatibotzat jo behar gatazka, aurrera egiteko modua ere badelako. Galdera da: nola egiten diegu aurre gatazkei? Nola barneratzen dugu gatazka gizartearentzako modurik ahalik eta osasuntsuenean?

Giza Garapenari buruzko txostena (NBGP), 2000

«Giza garapena jendearen aukerak zabaltzeko prozesua da, giza funtzioak eta ahalmenak handituz... Helburu bat ez ezik, prozesu bat ere bada. Garapenaren maila guztietan, hiru funtsezko ahalmenak dira jendeak bizitza luze eta osasuntsua bizitzea, ezagutzak izatea, eta bizi-maila egoki baterako behar diren baliabideetarako sarbidea izatea. Baina giza garapenaren esparrua harago doa: jendeak neurri handi batean aintzat hartzen dituen beste aukera-eremu batzuek parte-hartzea, segurtasuna, jasangarritasuna, giza eskubideen bermea hartzen dituzte barruan, beharrezkoak guztiak sortzailea eta emankorra izateko, eta nork bere burua errespetatzeko, indartzeko eta komunitate bateko kide izateko sentimendua izateko. Azken finean, giza garapena jendearen garapena da, jendeak jendearentzat egina».



<http://hdr.undp.org/en/file/que-es-el-desarrollo-humano>

Giza Garapenari buruzko txostena (NBGP), 2010

«Bizitza luze, osasuntsu eta sortzaile bat bizitzeko pertsonak duen askatasunaren adierazpena da giza garapena, bai eta pertsonak baliozkotzat hartzen dituzten helburuak lortzen saiatzeko edota bizi diren planetako garapen iraunkor eta zuzenean parte-hartze aktiboa izateko askatasunaren adierazpena ere, gizabanako moduan nahiz talde moduan».

Giza garapenaren ikuspuntuaz gehiago jakiteko

Nussbaum, Martha (2002): *Las mujeres y el desarrollo humano*. Herder, Bartzelona.

Nussbaum, Martha (2012): *Crear capacidades: Propuestas para el desarrollo humano*. Paidós, Bartzelona.

Sen, Amartya (2000): *Desarrollo y libertad*. Planeta, Bartzelona.

3. Aldaketa prozesuak bultzatzeko ikuspuntuak eta tresnak. Zer egin desiratutako aldaketa sustatzeko eta gauzatzeko?

Aldez aurreko kontsiderazioak aldaketa prozesuen bultzadari ekiteko

- *«Nola» aintzat hartzearen garrantzia, prozesuak.*

Hala proiektu pertsonalei nola ekintza kolektiboei, ikuspuntu finalista eta lineal batetik begiratzeko joera dago, helburu edo desiratutako eraldaketa batzuetara eramaten duten prozesu gisa. Baina prozesu horiek ez dute beti desiratutakoa lortzera eramaten, edo lortutakoak ez du beti gogobetetasunik sorrarazten. Eta ez dira linealak ere, ez dute bide ageriko eta argi batean etengabe aurrera egiten. Horregatik, garrantzia duena ez da helburua, prozesua baizik. Beste modu batean esanda, helburua bidea bera da. Bide bat, bestalde, gorabeherak dituena, norabide aldaketak, atzera-bueltak... Erabakitze eta elkarrizketa prozesu bera da bidea.

- *Kolektiboak izan behar duten eraldaketen abordatze kolektiboa.*

Arazo sozialak eta, horrenbestez, horiek konpontzeko egin beharrekoak indibidualki kontsideratutako pertsonen kontuak direlako ideia desmuntatu behar da. Edo, bestela, zehaztasunez identifikatutako taldeenak. Horrela, esan ohi da pobrezia pertsona edo herri pobreen arazoa dela; langabezia lanik ez duten pertsonen kontua dela; edo gizonen eta emakumeen arteko berdintasunik eza emakumeengan dagoela, eta abar. Kolektiboak eta egiturazkoak diren arazoak arazo kolektibo gisa identifikatu behar dira, eta ikuspuntu horretatik egin behar zaie aurre.

Abordatze kolektiboak, gainera, aldaketa prozesuak gehiengoaren interesen defentsan oinarritzea dakar, eta ez gutxiengoaren pribilegioetan. Bestalde, abordatze hori ez da egin behar talde edo sektore sozial jakin batzuen abangoardismotik, ezaguera kolektiboko prozesuetatik eta parte-hartze bidezko eta inklusiboaren bultzadatik baizik. Hau da, prozesuek berdintasunean dauden desberdintasunak aintzat hartu behar dituzte, eta parte hartzeko zailtasun handienak dituzten pertsona eta/edo talde sozialak bereganatu.

- *Aldaketa guztiak dira beharrezkoak eraldaketa sakonetarako: pertsonalak, kolektiboak eta egiturazkoak.*

Keinu eta aldaketa pertsonalak eguneroko bizitzan oso beharrezkoak direla ikasi dugu. Eta bakartuak ez direnean soilik bihurtzen direla eraldatze esanguratsuko ekintza politiko, hau da, modu masiboan gertatzen direnean eta eremu indibidual soilean geratu beharrean beren dimentsio kolektiboan adierazten direnean.

Eskarmentuak erakusten du elite batzuek bultzatutako egiturazko aldaketak ez direla eraginkorrik aldaketarik ez baldin badago horiek eragindako pertsonen jokabideetan eta balioetan. Gaur egun, eraldaketa sakonetan pentsatzeak zenbait prozesuren batuketan eskatzen du: a) egunerokotasunari lotutako aldaketak pertsonengan; b) eraikuntza kolektiboko aldaketa politikoak (eguneroko keinu masibo horien ondorioz); eta c) egiturazko aldaketak (sistemen bihotzetan dauden erakunde, egitura eta arauketenak).

- *Ideiek, uste osoek eta sinesmenek sustatzen dituzte eraldaketak.*

Aldaketa lortzeko asmoa dutenek kapitalistak eta neoliberalak ez diren printzipioetan oinarritutako ideiak, ereduak eta paradigma zein praktika alternatiboaren ikuskerak behar dituzte. Pentsamendu politiko heterodoxo baterako politikei argia emango dieten kontzeptuak izan behar dituzte, eta gisa bereko estrategiak landu. Bideak eta prozesuak berriro pentsatzeak horiek sustatzeko ideia berriak eta horiek ibiltzea ahalbidetuko duten uste osoak izatea dakar. Ideien balioa berreskuratu behar da, haietatik abiatuta baino ezin baita bultzatu aldaketa. Ez du edozein ideiak balio, jakina; mobilizatzeko eta eraldatzeko ahalmena dutenek soilik. Horregatik, erabakigarria da trukearen, elkarrizketaren eta ideia berrien ekoizpen kolektiboaren espazioen balioa handitzea.

- *Mistika eta emozioak beharrezkoak dira aldaketarako.*

Ez dira ideiak mundua mugitzen duten bakarrak. Emozioak, desioak, espiritualtasuna beharrezkoak dira hala eusteko nola eraikitzeko. Eraldaketak posible dira pertsonak osorik inplikatzeko direnean, beren gorputzekin, arrazoiekin, ideiekin eta uste osoekin, baita, nahitaez, beren emozioekin eta sentimenduekin ere. Arreta eman behar zaio mistika horren lanketari, adierazpen emozionalari, beharrezkoa izateaz gain eraldaketan bultzada posible egiten duen baldintza baita. Grina pizten digunak mugitzen gaitu, eta grinaz baino ez dugu eraldatzen.

- *Bultzada utopikoaren eta pragmatismo baita ere beharrezkoaren arteko uztartzea.*

Utopia behar da orainari desafio egiteko, ametsak iratzartzeko eta ostertzei begiratzeko, eta pragmatismoa ostertz horiek bizi dugun errealitatearen erdian egunero zabaltzen joan behar dugun eraikuntza praktikoetara egokitzeko.

- *Lokala eta globala elkartu aldaketaren bideetan.*

Aldaketen eta eraldaketen gaur egungo markoan, espazio lokala eskala globaleko prozesuen berrituratzearen ondorioak adierazten direneko eskala gisa ageri da; batzuetan positiboak dira ondorio horiek eta, beste askotan, maltzurak eta bidegabeak. Baina lokala espazio potentzial gisa ere azalartzen da, egokia eta behar bada bakarra, ondo bizitzeko, ongizateko eta giza garapeneko komunitate proiektu bat islatzeko eta sustatzeko. Lokala ez da bigarren mailako espazio bat, pertsonak, kolektibitate gisa, garapen prozesua bere sentituz ulertu eta bizi dezaketen espazioa baizik. Hartan sortzen diren eraldaketek eta giza garapeneko komunitate proiektuek zabaltzeko eta proiektu global alternatiboen erreferentzia eta oinarri bihurtzeko aukera izan behar dute. Giza garapen lokala planteatzeak bestelako gizarte global baterantz ibiltzea dakar, ongizatearen ikuspuntuen dibertsitatea jasoko duena, horiei gauzatzeko aukera emanez eta,aldi berean, horien arteko elkarbizitza positiboa bilatuz.

- *Gatazken onarpena eta kudeaketa aldaketa prozesu guztietan.*

Aldaketa orok, benetakoa baldin bada, gatazkek eragiten ditu, laboratutako pertsonen pribilegioen galera dakarrelako eta interes desberdinen arteko gatazken konponbiderako agertoki berri bat sortzen duelako. Proposamen alternatiboak ezin

du alde batera utzi hori, eta gatazka horiek identifikatu, kudeatu eta konpontzearen garrantzia aitortu behar du.

- *Bizitzaren jasangarritasuna abiapuntu gisa, helmuga gisa eta baita eraldaketa-ranzko bide gisa.*

Ongizate ekonomikoa beste arlo batzuei buruz (naturari buruz, bereziki) kezkatu gabe lortzeari lotutako iraganeko baikortasunen aurrean, nahitaezkoa da aitortzea izaki mendekoak eta ekomendekoak garela eta, horrenbestez, adostasuna behar dela bizitzaren jasangarritasuna ziurtatzen duten prozesuei (ugaltze prozesuak, zaintzakoak, ingurumenaren jasangarritasunekoak...) lehenasuna emateko arlo guztietan (sozialean, politikoan, kulturean, ekonomikoan).

Aldaketa prozesuak bultzatzeko ikuspuntu eta tresna batzuk

- *Eskubideen ikuspuntua.*

Eskubideen ikuspuntutik, pertsonen ongizateari buruz egiten diren baieztapenak ez dira desio formulazio hutsak; gizartearentzako exijentzia proposamen bat daukate, eta eskakizun iturri bat pertsonentzat. Kontua da eguneroko praktika pertsonalean (indibiduala eta kolektiboa, soziala eta ekonomikoa, politikoa eta kulturala) errespetua, bermea eta eskubide horien sustapena barneratzea ahalbidetuko duten mekanismoak aurkitzea. Lehenasuna du oinarritzko eskubideen zehaztapenean eta aitortzan urratsak egiteak, hala nola izateko eskubidea, «ondo bizitzekoa», ondasun komunetarako sarbidea izatekoa eta horiek kudeatzekoa, parte-hartze politiko, sozial eta ekonomikorakoa eta abar. Plataforma horretatik, anbizio handiagoko eraldaketak sustatzeko aukera zabaltzen da.

- *Ahalmen indibidual eta kolektiboen ikuspuntua.*

Tradizionalki, ongizateari lotutako ahalmen gisa pertsonengan dituzten emaitzekin erlazonatutakoak (osasuna, heziketa, bizilekua eta abar) soilik identifikatzen dira, baina baztertu egiten dira horiek ahalbidetzen dituzten, horiei eusten dieten eta horiek handitzen dituzten prozesuak. Ahalmen indibidualak nahitaezkoak baldin badira ere, nekez lortu ahal izango dira ahalmen horiek, pertsonentzako emaitzak lortzen saiatuko diren eta ahalmen indibidualok jasangarriak eta

hobegarriak egiteko dinamikak bultzatuko dituzten ahalmen kolektiboak gabe. Horregatik, funtsezkoa da pertsonak, indibidualki zein kolektiboki, beren bizitza aukera guztiak prozesu batean zehar zabaldu ahal izan ditzaten behar diren baldintzak eta tresnak identifikatzea.

- *Genero ikuspuntua.*

Mintegi iraunkorrean, ondorengo saio bat eskaini zitzaion *Bizitzaren jasangarritasunaren paradigmaren ekarpenak garapen alternatiben eraikuntzari* gaiari; nahitaezko baldintza gisa planteatu ziren genero berdintasunaren bermea eta boterearen banaketa bidezkoa gizon eta emakumeen artean.

- *Aldaketarako heziketa.*

Ahalmenak eta aukerak zabaltzeak bereziki bideratzen du heziketara, funtsezkoa baita pertsonak modu aktibo eta kontzientean parte har dezaten aldaketa prozesuetan. Gizarte bidezkoago batera daramaten eraldaketek pertsonengan zein talde sozialetan, balioen funtsezko aldaketak eragiten dituzten prozesuak behar dituzte; deszentratzean eta alternatiboaren esperimentazioan oinarritutako didaktikak; bizitzako ekintza eta forma egunerokoetara daramaten kontzientziazio prozesuak; mobilizazio soziala eta herritarren parte-hartzea sustatzen duten ideien eta emozioen lanketa...

Heziketa sistema gakoa baldin bada ere, arriskutsua da hari gehiegizko erantzukizuna egozte, batzuetan gertatzen den bezala, horren ondorioa beste eragile batzuen erantzukizunak ezabatzea edo gutxitzea izan daitekeelako. Jabetu beharra dago heziketa aldaketa eragiteko tresnatzat hartuta egiten den apustuaz, eta horrek izan ditzakeen emaitzak apalak eta epe luzerakoak izan daitezkeela. Ekintza inguru formaletan eta ez formaletan konbinatzen jakin behar da. Gogoetarako puntu garrantzitsu bat hau da: hitz egin daiteke sozializazioaz hezteko modu gisa?; sozializazioa bizitzaren arlo guztietan gertatzen da, heziketaz harago, eta funtsezko elementua da, zalantzarik gabe, pertsonen gaikuntzan.

Kulturaren eraldatzaile izango den heziketa bat proposatzen da, ongizatearen ulermen irekiagoetara eramango duena, eta deliberaziozkoagoa, parte-hartzerako ahalmenak bereganatzen lagunduko duena. Azken batean, kontua da alternatiba kolektiboen bilaketan hezte.

- *Aldaketaren ezaugarriak aurreratzen dituzten espazio liberatuen identifikazioa eta sustapena.*

Esperientzia alternatiboak eta abian diren aldaketa prozesuak identifikatzeko ahalegina egin behar da; bazterrekoak edo garrantzirik gabekoak ez direnak, eta milaka ekimeni eta pertsonari eragiten dietenak. Eta, halaber, horiek sustatzeko eta indartzeko konpromisoa hartu behar da, horietan aldaketaren haziak aurki ditzakegulako. Horretarako, geure buruari galdetu behar diogu zer arazo dagoen horien hazkunderako, zer zailtasun dauden horiek ageriko egiteko eta aitortuak izateko, eta zer muga dituzten beste testuinguru batzuetan aplikatuak izateko. Seguru azterketa horretatik anbizio handiagoko aldaketa prozesuak nola bultzatu erakutsiko duten arrastoak sortuko direla.

Prozesu zentrala: etorkizun desiragarri eta posiblearen definizioan parte hartzea. Ez dago emantzipaziorik zeure etorkizuna erabakitzeke ahalmenik gabe.

- *Trantsizioan dauden espazioak sustatu.*

Aldaketak ez dira eskuarki bat-batean gertatzen eta, kasu guztietan, gertatzeko baldintzak sortuz joan diren aurreko prozesuen emaitza dira. Gure desio diren errealitate alternatiboetara iragatea ahalbidetuko duten trantsizioko helburuak eta praktikak ezartzea planteatu behar da. Badira dagoeneko trantsizio proposamen ugari, maila askotan planteatuak (indibidual eta kolektiboak, soziala eta egiturazkoak), arlo hauetan gutxienez: energia, demokratizazioa, ondasun komunaren berreskuratzea, kudeaketa eta sustapena, ekonomiaren berlokizazioa, ondasun eta zerbitzuen desmerkantilizazioa eta abar.

- *Prozesuaren adierazle berriak.*

Ongizatea, giza garapena edo zorientasuna neurtzeko adierazle berriak behar diren bezala, prozesuaren adierazleak ere behar dira. Horrekin, eguneroko praktika indibidual zein kolektiboak, lokalei zein sektorialeak, aplikatzeko moduko adierazleei egiten zaie erreferentzia; desiratzen ditugun aldaketak zer neurritan ari diren bultzatzen neurtzeko aukera emango dutenak, baita horietara eramaten duten prozesuak nola ari diren garatzen ere. Arlo honetan adierazle batzuk landu dira (ekonomia solidarioaren kontu-ikuskaritza soziala, ondasun komunaren

ekonomiaren adierazleen matrizea eta abar) enpresa, organizazio eta erakunde publikoentzako kontu-ikuskaritzak eta balantze sozialak egiteko.

- *Ekimen alternatiboen eraikuntzarako eragile berriak.*

Eragile berriak behar dira aldaketa bultzatzeko. Horrek eskatzen du: i) berriz pentsatzea zer konfigurazio duten eta zer paper jokutzen duten eraldaketen sustapenean alderdi politikoek, sindikatuek, enpresa sektoreak, mugimendu sozialek, GKEek eta abarrek; ii) eremu publiko politiko, kultural eta ekonomikoaz berriro jabetuko diren herritar mugimendu berriak bultzatzea eta, bide horretan, arreta berezia ematea herritarrek autonomia eraikitzekeo dituzten espazioak bultzatu eta babesteari (ikuspuntu horretatik begiratuta, energia «garen» mugimendu sozial berriei buruz ari gara, banka etikoaz, elikaduraz, dena delakoagatik erasotakoez...).

- *Erakunde berriak agertoki berrien laguntzarako eta kudeaketarako.*

Gaur egungo erakundeek ez diete erantzuten, eta ezin diete erantzun, aldaketen exigentziei, ezta aldaketa horretarako behar diren prozesuen bultzadari ere. Funtsezko zeregina izango da, beraz, gaur egungo erakundeak berriro pentsatzea, herritarrek berriro konektatzea kudeaketa publikoarekin eta berriro planteatzea erakundeek hala maila lokalean nola globalean izan beharreko funtzioak. Ongizate eredu berrietarantz ibiltzeko, prozesu horiei ekin beharko zaie, besteak beste, trantsizioko agertokietarako beharrezkoak diren erakunde berriak sustatzeko.

- *Lankidetzeta eta konexioa sarean.*

Aldaketa prozesuek ekimen, organizazio sozial eta erakunde askoren arteko konexioa behar dute, elkarren aitortzarekin eta erlazionatzeko marko eta forma berrien ezarpenarekin hasita. Prozesu horiek lankidetzeta eta sarean egindako lana ere behar dute, askotan ikusezin bihurtutako eta/edo merkatuak eta nagusitutako kultura neoliberalak testigantzazkoak edo eraginkortasunik gabeak direla esanez gutxietsitako esperientziak indar betean zabaldu ahal izan daitezen. Askoren eta desberdinen arteko lankidetzatik baino ezin izango da funtsezko aldaketetara iristeko aukera izan.

4. Alternatiboaz gogoeta egiteko moduari buruzko zenbait proposamen

Berriro ere ohartarazita hauek proposamenak direla ondorio itxiak baino gehiago, alternatiboaren formulazioan eta gauzatzean arreta berezia eman beharrekotzat jotzen diren arlo batzuk jaso dira.

Non jarri alternatiboaren fokua?

- *Egituren eta kulturen aldaketan, maila indibidual zein kolektiboan.*

Gaur egungo egitura ekonomiko, politiko eta sozialek erakutsia dutenez ez direla gai bizitzari giza duintasunak eta naturak eskatzen duten alturan eusteko, «zentzu komun eta kolektiboa», gaur egun lehiakortasunaren eta indibidualismoaren logikaren mendekoa, aldatzeko exijentzia sortzen da, eta giza duintasunaren zaintzan zentratutako logika sozial/politiko/ekonomiko bat sortzekoa, egikaritze lokal arrakastatsuetatik abiatuta maila unibertsaleko eskaletara eramateko modukoa.

Alternatiboranzko eta inklusio globaleranzko trantsizio bideak aurkitzeko,

Hiru aldaketa planteamendu

Fernández Ortiz de Zárate, Gonzalo (2015): «Alternativas al poder corporativo: Bosquejo de un marco de referencia para la disputa del conflicto capital-vida». *Lan Harremanak* 33 (2015-II), 16-52.

http://www.ehu.eus/ojs/index.php/Lan_Harremanak/article/view/16090

<http://omal.info/spip.php?article7876>

Gaur egun enpresa transnationalek, agente hegemonikoak indarrean den gizarte globalean, metatzen duten botereari aurre egiteko alternatibak proposatzen ditu. Erreferentzia markoa zenbait ikuspuntu emantzipatzaile eta inklusiboren artikulazioaren aldeko apustutik abiatuta eraikitzen da; erresistentzia kontrahegemonikoaren praktika ugariak eskainitako ikasketetatik zuzenean jaiok dira ikuspuntu horiek.

Paul Mason, Paul (2016): *Postcapitalismo: Hacia un nuevo futuro*. Paidós,artzelona.

https://www.planetadelibros.com/libros_contenido_extra/32/31609_Postcapitalismo.pdf

Herrero, Yayo (2012): *Vivir bien con menos: Ajustarse a los límites físicos con criterios de justicia*. Manu Robles-Arangiz Institutua, Bilbo.

<http://alboan.efaber.net/es/registros/6992-vivir-bien-con-menos>

aurre egin behar zaio boterea eta baliabideak metatzen dituzten gutxiengoen interesekiko gatazkari. Horrek ongizateaz gozatzen ari diren populazioen eta prekaritatean bizi direnen arteko gatazkari aurre egitea dakar; funtsezko helburutzat inklusioa duten erakundeak sortzea eta politikak bultzatzea, zaurgarritasun egoeran dauden kolektiboei harrera egiteko gai direnak; helburu gisa planteatzea boterea eta baliabideak birbanatzea.

Ez dago proposamen alternatiborik ez baldin bazaio aurre egiten desioaren heziketari. Nola hezi desioa pedagogikoki? Nola pentsatu zibilizazio sinple eta xumeagoa batean?

Pertsonengan pentsatu behar da, interes indibidualez harago. Pertsonak emozioengatik, fedearengatik, ideal kolektibo eta komunitarioengatik mugitzen dira, elkarbizitza desioengatik, elkartasun zentzuarengatik eta abar. Baina kontsiderazio horiek guztiak, kontuan ez hartzeaz harago, gutxietsi eta arbuia egiten dira oro har merkatu harremanak nagusi direnean. Alor horretan potentzial eta desafio handia dago, gogoeta egiteko eta ekimenak proposatzeko.

- *Emozioa eta zentzua sortzen duten trantsizio narratibetan.*

Xedeak eta helburuak berrikusteaz gain, mundu bidezkoago bat lortu nahi duten xede eta helburu berriak formulatu behar dira. Formulazio hori ostertz desiragarri eta posibleak planteatzen dituzten trantsizio narratiben markoan egin behar da, esperantza eta aldaketara bideratutako ekintzei ekiteko motiboak sortzen dituzten trantsizio narratiben markoan. Hauteman beharra dago zer arlotan sor daitezkeen ekintza kolektiboko egitasmoak bultzatzen dituzten narratiba indartsu eta erakargarriak.

- *Dagoeneko badauden trantsizio prozesu eta praktiketan.*

Ezin da alternatiboa pentsatu hutsetik abiatuta. Hutsegite bat da errealitate kritiko gisa dagoeneko badaudenak aintzat ez hartzea. Diskurtso alternatiboaren lanketa funtzionatzen ari diren autogestioko eta eraikuntza kolektiboko prozesu eta praktikak aintzat hartzearekin hasten da; gauzak egiteko beste modu bat posible dela erakusten dute horiek dagoeneko. Halaber, funtzionatzen duen eta ongizaterako ona den zaharra ere aintzat hartu eta baloratu behar da; horrek zaharra eta berria gurutzatzen dituzten prozesu hibridoak bultzatzea dakar.

Aldaketaren hazia duten prozesuak

Garrantzitsua da sustatzen diren ekimenak lortu nahi den aldaketaren norabidean joatea. Ez dago irizpide absoluturik ebaluatzeko proiektu batek noiz duen karga kritiko eta sortzaile hori. Ariketa interesgarria da geure ingurura begiratzea, ikusteko ea badagoen aldaketa positibo batean eragina izateko ahalmena duen prozesu kritikorik. Hemen adibide batzuk aipatuko dira, horien identifikazioa posible dela erakusteko asmo hutsez.

- *Premiatik sortzen diren prozesuak eta mugimenduak.*

Interes berezia dute norberaren premiatik sortzen diren ekimenek, diskurtso jada usatu eta ezarrietatik urrundutako zoru batetik sortuak direlako eta arazoei beste ikuspuntu batetik egiten dietelako aurre. Adibidez, krisiaren eraginez sortutako protesta eta sumindura mugimenduek –Plataforma de Afectados por la Hipoteca (PAH) adibidez–, beren ahulugune guztiekin ere, laguntza handia eman dute gizarteak krisiak sektorerik ahulenetan duen eraginaren kontzientzia har dezan.

- *Ekonomia lokal eta zirkularra, sozial eta solidarioa, eta trantsizioan dauden prozesuak.*

Ekoizpen eta banaketa modu berrien bideragarritasunean sinestea ahalbidetzen duten gero eta proposamen gehiago agertzen ari dira:

- Ekoizpen lokalen kontsumo kolektiboak (kontsumo taldeak), energetikoak (kooperatibak), merkataritza lokala, agroekologia, finantza solidarioak...: Koopera: <http://koopera.org/>
- Gizarteratze enpresak: CEPES (Confederación Empresarial Española de la Economía Social): http://www.cepes.es/social/entidades_empresas_insercion.
- REAS-Red de Economía Alternativa y Solidariak artikulatu eta zabaldutako ekimenak: <http://www.economiasolidaria.org/>.
- Merkataritza bidezkoa. Coordinadora Estatal de Comercio Justo: <http://comerciojusto.org/>; Fair Trade: <http://sellocomerciojusto.org/es/>
- Trantsizioan dauden hirien mugimendua: Red Mundial de Ciudades en Transición: <http://www.reddetransicion.org/>

- *Prozesu parte-hartzaileak.*

Parte-hartzearen arloan, eredu parte-hartzaile berrien ekimenak jarri dituzte abian nazioartean erreferentzia diren Euskadiko enpresa batzuek.

- *Crowdsourcing, crowdfunding* plataformak: Goteo.org, Verkami, Injoinet, etc.

Sakontzeko:

Comín Oliveres, Antoni, eta Luca Gervasoni Vila (koord.)(2011): *Democracia económica. Hacia una alternativa al capitalismo*. Icaria-Antrazyt, Bartzelona. Egile askoren artean idatzitako liburua da, honelako galderak planteatzen dituena, besteak beste: aurki al dezakegu gure errealtate ekonomikoan proposamen alternatiboetara bideratutako esperientziarik?; kooperatibak eta enpresa demokratikoak, sindikalismoa, banka etikoa edo kontsumo arduratsuko mugimenduak, bizitza ekonomikoa antolatzeke forma gisa, kapitalismoaren bidegabekeriak desagerrarazteko ahalmena al dute?; zentzurik ba al du esperientzia horiek sistema ekonomiko alternatibo baten ernamuntzat hartzeak?

- *Elkarrizketarako espazio kolektiboaren sorreran.*

Pentsamendu alternatiboaren lanketarako funtsezkoa da gogoeta espazio kolektiboetan egitea, pertsonen eta taldeen parte-hartze aktiboa protagonista dela. Horrek eskatzen du: a) espazio komunitarioen balioa eta zentzua berreskuratzea; b) autonomiarako eta eraikuntza komunerako ahalmen pertsonal eta taldekakoak garatzea; c) gizarteko aktoreen arteko elkarrizketa sustatzea: enpresak, sektore publikoa, unibertsitateak, GKEak...

Lan hori egiteak eskatzen du aldaketa sustatzeko beharrezko eragileak zeintzuk diren bereiztea, horietako bakar bat ere baztertzeko ez dela ziurtatuta. Kolektiborako ona denaren definizioan adostasunak nagusitu behar du. Funtsezkoa da eragileen parte-hartzea eta debaterako mekanismoak bermatzen dituzten erakundeak eta funtzionamendu arauak izatea. Elkarrizketa prozesu horrek bere helburuak bete ditzan, mugimenduen eta organizazio sozialen ahalmen kolektiboak indartu egin behar dira.

- *Dauden komunen eta berrien sorreraren babesean.*

Ongizatearen dimentsio kolektiboak berrindartu behar dira, eta horrek eskatzen du garrantzia ematea guztion onaren zaintzarekin zerikusia duen ororen erres-

petuari eta babesari. Komuna aintzat hartzea interesen arteko topaketa hutsa baino gehiago da: gai batzuetan komunari lehentasuna ematea inplikatzeko du, interes indibidualen logikaren gainetik. Kontua ez da gaur egun komuntzat jotzen diren ondasunak (ura, airea, segurtasuna eta abar) mantendu eta hobetzea soilik; horrez gain, pentsamendu alternatiboak eraiki behar den ongizaterako beharrezkoak diren beste komun batzuk identifikatu behar ditu.

- *Elkarbizitzaren mugen kudeaketan.*

Nola bizi gaitzke elkarrekin desberdinak izanik eta baldintza berdinetan? Nolako arauak eta egitura sozialak, aldi berean unibertsaltasunaren printzipioa ere aintzat hartzen dutenak, sortu beharko genituzke desberdinen artean bizitzeko?

5. Zer gairi buruz jarraitu hitz egiten eta sakontzen?

Espero izatekoa zen bezala, mintegia amaitzean, eztabaidatutako gai askok lan handiagoa behar zutelako irudipena geratu zen. Testuan zehar arreta berezia eman beharreko gai zentralak zeintzuk diren ondoriozta badaiteke ere, hemen horietako batzuk aipatuko dira, lehentasunezkoztat joak eta gogoeta premia handiagokoak.

- *Ongizate globala.*

Ongizatea testuinguruaren araberakoa bada ere (horrek «ongizate lokalak» aintzat hartzea dakar), beti izango dira beharrezkoak erreferentzia unibertsalak, edozein lekutan kontuan hartzekoak. Gehiago landu behar da zer den komun globala eta, aldi berean, nola definitzen diren identitate lokalak. Debatean ez ziren asko eztabaidatu erreferentzia planetarioak eta, hala ere, erabakigarriak dira gizarte bakoitzak erabakitzen duen ongizate eredia ez dadin gauzatu beste gizarte batzuen ongizatea oztopatzean edo eragoztean oinarrituta. Geroko utzitako beste kontu bat da «alternatiboranzko» aldaketa asmoaren gaineko segurtasun falta globalaren giroak dakarrenaren azterketa. Hau da, nola aurre egin beldurra gaur egungo egoera aldatuko lukeen proposamen ororen aurka ekiteko arma gisa aurkezten duen erreferentziari, eta nola identifikatu baketzeko zer gutxieneko baldintza behar diren gizarte batean aldaketari ekitean.

- *Alternatiboa aldaketa klimatikoaren aurkako borrokari lotuta (krisi ekologikoa).*

Gaiari buruzko aipamenen bat egin baldin bada ere, eta duen garrantziaz jabetuta egon arren, nabarmendu da ez dela berrikusi gizakiaren eta naturaren arteko harremana, eta hori gakoa da alternatiboa pentsatzeko eta eraikitzeko. Nekez izango da posible bizitzaren kontserbaziorako estrategia eraginkor eta jasangarri bat erlazio hori berriro formulatu gabe.

- *Alternatiboa genero berdintasunari lotuta.*

Lehen esan bezala, aurreko puntuan bezala, ez da modu espezifikoan landu gaur egun gizonen eta emakumeen artean ongizatea definitzean dauden desberdintasunen gaia. Mintegian zehar, saio bat izan zen beren-beregi boterea gizonen eta emakumeen artean berriro banatu behar derrigorrezkoari eta botere harreman bidezkoen ezartzeari buruz.

- *Zeintzuk diren alternatiboa, desiragarria, bidezkoa pentsatzeko eta eraikitzeo irizpide erabakigarriak.*

Interes ekonomiko eta egoistez besteko elementu batzuetan sakontzea, jendea mugitzen dutenak: ideia berriak, kolektiboa eta komunitarioa, emozioak, fedea, harremanak... Alternatiboa pentsatzeko eta eraikitzeo ahalmenak: zer ahalmen behar ditugu aldaketaren sortzaile diren narratibak eta praktikak garatzeko?

- *Ongizatearen dimentsio indibiduala eta kolektiboa.*

Sakondu zeintzuk izan behar duten espazio eta ondasun komunak. Ez dago garapenik ez baldin badago prozesu kolektiboak bultzatu eta abian jartzeko ahalmenik. Eredu indibidualaren eta kolektiboaren artean elkarrekiko erlazioa eta tentsioa daude, positibotzat eta sortzailetzat jo beharrekoak, nahiz eta ez den erraza definitzea hori horrela izatea nola lor daitekeen. Garrantzitsuena da ulertzea zer gertatu behar den eta zer egin dimentsio bakoitzean desiratutako aldaketa sustatzeko. Zer gertatzen da «pertsona beteak» izateko moduek elkarren aurka talka egiten dutenean? Zeintzuk dira gizartean bizitzeko askatasun indibidualaren mugak? Noraino iristen da askatasuna? Nola definitzen dugu berdintasuna? Zer egin dezakegu hasierako baldintzak pertsona guztientzat berdinak izan daitezen?

- *Alternatiboa eraikitzeo eragileak.*

Aldaketa sustatzeko behar diren eragileak bereizi. Badira dagoeneko funtzionatzen duten eragile baliagarriak, baina eragile berriak behar dira irtenbide berriei lekua egiteko.

- *Aldaketa desiragarria sortzeko abian jarri behar diren mekanismoak, prozesuak eta ekimenak.*

Gatazka aldaketaranzko bidea egiteko mekanismo gisa: nola aurre egin gatazkei? Nola barneratu gatazka gizartean modu eraikitzailean?